



‘EUSKARA MERKATARITZA’ PROGRAMA GARATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN ESLEIPENERAKO, EUROPAR BATASUNEKO ATALASETIK BEHERAKO PROZEDURA IREKIAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO-BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA.

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratu honen xedea da “EUSKARA MERKATARITZARA” programa garatzeko eta kudeatzeko zerbitzua ematea Nafarroako toki erakundeetan: Antsoaingo Udala, Arangurengo Udala, Berriobeitiko Udala, Berriozarko Udala, Burlatako Udala, Estella-Lizarrako Udala, Uharteko Udala, Atarrabiako Udala, Garesko Udala eta Zizur Nagusiko Udala. Plegu honetan ezarritako alde guztien eskubide eta betebeharrak argitzeko paktuak eta baldintzak, aspektu juridiko, administratibo eta ekonomikoetan.

Esleipenduna suertatuko den enpresak “EUSKARA MERKATARITZARA” programa garatzeko eta kudeatzeko zerbitzua emanen du aipatu toki entitateetan, Plegu honen eta kontratuaren Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguaren arabera.

Baldintza ekonomiko, administratibo edo juridikoetan Preskripzio Tekniko Partikularren Pleguaren eta Administrazio-baldintza partikularren artean kontraesanik balego, azken hau gailenduko da Preskripzio Teknikoenaren gainetik.

Kontratu Publikoetarako Hiztegi Batua onesten duen Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2195/2002 (EE) Erregelamenduarekin bat –Batzordearen 213/2008 (EE) Erregelamenduak (EE) aldatua–, hona zer diren CPV kodeak:

39294100-0	Informazio eta sustapen produktuak
79342200-5	Sustapen zerbitzuak
79530000-8	Itzulpen Zerbitzuak
39294100-0	Informazio eta sustapen produktuak

2. KONTRATAZIO ORGANOAREN ETA KONTRATUA KUDEATZEN DUEN UNITATEAREN IDENTIFIKAZIOA.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 8. eta 226. artikuluetan nahiz Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean xedatutakoarekin bat, kontratazio organoa **Berriobeitiko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra** da, eta kontratuaren Unitate Kudeatzailea, berriz, **Berriobeitiko Udaleko Euskara Zerbitzua**.

3. INDARRALDIA ETA LUZAPENAK.

Kontratu honen indarraldia urtebetekoa da, kontratua sinatzen denetik, eta urtez urte luza daiteke, mugaeguna iritsi ondoren, gehienez ere lau urtez; horrenbestez, kontratuko xedapenak indarraldian egiten diren zerbitzu guztiak arautuko dituzte.

Luzatzen bada, Berriobeitiko Udalak urte bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen jakinaraziko dio enpresari programan parte hartzen duten zein entitatek hartu duten alta eta baja, halakorik izan bada, bai eta kontratazioaren baldintzetan izan diren beste aldaketa batzuk ere, enpresak behar diren erabakiak har ditzan, bideragarritasuna aztertu ondoren. Udalen alta eta baja kasuetan, kontratuko diru-kopurua egoera berriaren arabera egokituko da.

4. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA ETA AURREKONTUA.

Aurreko ekitaldietako datuetan oinarrituta, "EUSKARA MERKATARITZARA" programako garapen eta kudeaketa zerbitzuen guztirako zenbatekoa urteko indarraldi bakoitzerako 26.202,06 euro izanen dela jotzen da (BEZa kanpo).

Kontratua urtez urte luzatzen ahalko da, gehienez ere lau urtez. Holakoetan, kontratuak gehienez bost urtez iraunen du.

Kontratua gorantz aldatzen ahalko da, plegu honetako 26. klausulan aurreikusitakoarekin bat.

2/2018 Foru Legearen 42.2 artikuluekin bat, kontratuaren balio zenbatetsi osoa 178.174,00 eurokoa da (BEZa kanpo), gorantz izan daitezkeen aldaketak kontuan hartuta.

Kontratuaren esleipena eta eman litezken luzapenak, dagokion ariketan kontratutik eratorritako obligazioak finantzatzeko kreditu egoki eta nahiko izatearen baldintzapean daude.

Aipatu aurrekontua gainditzen duten eskaintza ekonomikoak ezetsiko dira.

Ordaintzeko beharkizuna bakarrik sortuko da enpresa esleipen-hartzaileak egiazki egiten dituen zerbitzuengatik.

Kontratistak ez du bere kasa inolako gasturik jasanaraziko Administrazioarekin hitzarturiko prezioaren gainean.

Kontratuaren prezioa eskaintza aukeratuan azken prezio gisa ageri den huraxe izanen da.

5. LANEN ORDAINKETA

Adjudikazioaren xede den eskaintzaren prezio oinarritzat harturik, kontratistak faktura bat aurkeztuko dio toki entitate bakoitzari egin duen zerbitzuaren ordainez, betiere unitate kudeatzaileak emaniko datuen arabera.

Nolanahi ere, faktura hilerok aurkeztuko da bitarteko elektronikoen bidez (FACE).

Arduradunak aurrez adostasuna agerturik, egindako zerbitzua ordainduko dio toki entitate bakoitzak kontratistari, beraren eskaintzarekin bat, faktura jasotzen denetik 30 egun naturaleko epe barnean.

6. SORTATAN EZ BANATZEA.

2/2018 Foru Legean ezarritakori jarraiki, kontratua sortatan ez banatze erabaki da, bestela programaren izaera bera deseginen litzatekeelako: hots, programaren izaera partekatua, 25 urteko ibilbidea eta programaren marka bera.

7. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMEN ATALASEAK.

Pertsona natural edo juridikoek, hala espainiarrek nola atzeritarrek, kontratatzen ahalko dute Administrazioarekin, jarduteko ahalmen osoa badaukate eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badute eta, betiere, ez badaude sartuak Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 9ko 2/2018 Foru Legearen 22. eta 26. artikuluetan ezartzen diren kontratazioa debekatzeko arrazoietan; eta, era berean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanik agertzen badira, betiere kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, zergak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak ordainduak baditu, eta betetzen baditu Seguratasun eta Lan arloko betebeharrak, bai eta Lan Arriskuen Prebentziorakoak ere, indarrean dauden xedapenekin bat.

Pertsona natural edo juridiko lizitatzzaileek beren kaudimen hala ekonomikoa eta finantzarioa nola teknikoa eta profesionala frogatu beharko dute, adjudikaziodunak izate aldera, honako baldintza hauekin bat, betiere:

- **Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa** finantza-entitateek lizitatzzailearen ahalmen ekonomikoari buruz emaniko kaudimen ekonomiko eta finantzariorako adierazpena aurkeztuz frogatuko da. Adierazpenean,

enpresaren datu ekonomiko nagusiak baloratu ondoren, ondorioztatuko da enpresak bere gain har ditzakeela kontratu hau betetzetik eratorzen diren arriskuak.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, halaber, Kontratu Publikoei buruzko 2/2028 Foru Legearen 16. artikuluan aurreikusita dauden beste bitarteko baten bidez frogatzen ahalko da, betiere kontratazio organoak nahikotzat jotzen baditu bai aurkeztu den dokumentazioa bai dokumentazio hartatik ondorioztatzen diren baldintzak.

- **Kaudimen teknikoa edo profesionala** duela frogatzeko, zerbitzuak emanen dituzten talde teknikoaren, laguntzaileen eta unitate teknikoen deskribapena egingen da, enpresan zuzenean sarturik egon edo ez.

Baldintza horiek frogatzeko, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- o Zerbitzuak eman behar dituen talde teknikoaren eta haren laguntzaileen izenak, bakoitzaren titulazio akademikoa aipatuta, eta baldintzen agirian ezarritako bestelakoak, baldin badago.
- o Administrazioaren eskura jartzen diren helbide elektronikoak, kontratuaren ondoriozko harremanetarako ematen direnak.

8. ESLEITZEKO PROZEDURA.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 72. artikuluan xedatutakoarekin bat, agiri honen xede den kontratua **Europako gutxienekoarena baino txikiagoko prozedura irekiaren** bidez, eskaintzarik onena zein den erabakitzeko, plegu honetan finkaturiko irizpideekin bat.

9. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Kontratua esleitzeko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan, dagokien ponderazioa eginda:

Irizpide kualitatiboak (matematika-formularik gabe)

1. *Proposamen metodologikoa: 44 puntu.*

Kontratu honen helburuarekin eta sektorearekin bat datorren proposamen metodologikoa: egitasmoaren izaera, helburuak, helburu horiek lortzeko eta eraginkortasuna neurtzeko tresnak.

Honako alderdi hauek hartuko dira kontuan proposamen metodologikoa baloratzeko:

- Zenbat bisita, bisiten ordutegi proposamena, eta egin beharreko bisiten egutegia eta plangintza: gehienez, 15 puntu.
- Enpresaren eta programan parte hartzen duten Euskara Zerbitzuen arteko koordinazio teknikorako proposamenak: gehienez, 10 puntu.
- Merkatariekiko bestelako kontaktuei buruzko proposamenak: gehienez, 6 puntu.
- Eskaintzen den programa garatzeko euskarri eta baliabide teknikoak: gehienez, 8 puntu.
- Bestelako jarduketak proposatzea: gehienez, 5 puntu.

Irizpide kuantitatiboak formula matematikoaren bidez

1. *Proposamen ekonomikoa: 30 puntu.*

Ez dira onartuko lizitazioaren oinarritik gora jotzen duten eskaintza ekonomikoak.

Eskaintza ekonomiko onuragarrienari 30 puntu emanen zaizkio eta gainontzeko proposamen ekonomikoak honako formularekin puntuatuko dira: $P = 30 \times OM/OF$

30 puntu

P = Lortutako puntuazioa

OM = Eskaintza ekonomiko merkeena

OF = Lizitatzzailearen eskaintza

2. Giza baliabideak eta dedikazioa: 16 puntu.

2.1. Langile kopurua. Gehienez, 4 puntu.

Langile kopurua (koordinatzailea kontuan hartu gabe, horrelakorik badago).

- o Langile bat = 2 puntu
- o Bi langile = 4 puntu

2.2. Formazio osagarria. Gehienez, 8 puntu.

Proiektuari zuzenean lotuta dauden langile proposatuen prestakuntza osagarria.

- o Landa-taldeko kide batek HIZNET titulua edo LINGUANET ikastaroa badu, 4 puntu.
- o Landa-taldeko bi kidek edo gehiagok HIZNET titulua edo LINGUANET ikastaroa badute, 8 puntu..

2.3. Dedikazioa. Gehienez, 4 puntu.

Proiektuari eskainitako lan ordu kopurua (koordinatzailearen orduak kanpo, horrelakorik badago).

- o 659 ordu = 0 puntu.
- o Hortik gora 5 orduko tarte bakoitzeko puntu bat gehiago.

3. Irizpide sozialak: 10 puntu.

Gehienez ere 10 puntu emanen zaizkie parekotasunari dagozkion alderdiei, genero-ikuspegiari doakionez. Irizpide horiek honako puntuazioaren arabera baloratuko dira:

3.1. Osaera. Gehienez, 5 puntu.

Proiektuari zuzenean lotuta dauden langile proposatuak taldekide izatea. Proiektuari zuzenean lotuta dauden langile proposatuen artean, emakumeak % 50 edo hortik gora badira: 5 puntu.

3.2. Berdintasun plana. Gehienez, 2 puntu.

Enpresak Berdintasun Plan bat onetsia izatea edo ez (bai/ez).

3.3. Kontziliaziorako neurriak. Gehienez, 1 puntu.

Enpresak neurriak onetsiak izatea edo ez enpresako lantaldeko langileek lana eta familia bateragarri egiteko (bai/ez).

3.4. Prestakuntza. Gehienez, 2 puntu.

Enpresan genero-prestakuntzari buruzko ikastaroak eman edo programatu izana enpresako langileentzat; gehienez, 2 puntu:

- o Emaniko edo programatutako ikastaroa, 20 ordutik beherakoa: 0,5 puntu.
- o Emaniko edo programatutako ikastaroa, 21 eta 50 ordu artekoa: puntu 1.
- o Emaniko edo programatutako ikastaroa, 51 ordutik gorakoa: 2 puntu.

Enpresak ziurtagiria aurkeztu beharko du, aurreikusita zegoen ikastaroa edo egutegia egin izana frogatzeko.

10. BERDINKETA

Behin kontratua adjudikatzeko irizpideak aplikatzearen ondorioz, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren puntuazioan berdinketa gertatzen bada, desgaitasuna duten langileen ehunekorik handiena duen enpresaren alde ebatziko da (hori agiri bidez frogatzen badu), Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 99. artikuluan ezarritakoari jarraiki, betiere ehunekoa gutxienez % 2 bada, eta halakorik ezean, edo berdinketak badirau, behin-behineko langileen portzentajerik txikiena duen enpresaren alde (agiri bidez frogatua), baldin eta portzentaje hori gehienez % 10 bada. Nolanahi ere, halakorik ezean, eta berdinketak badirau, genero berdintasunaren arloan jardunbide onak egin izana frogatzen duen enpresaren alde.

Irizpide horien aplikazioaren ondorioz, berdinketak bere horretan badirau, programa hau gauzatzeko izendaturik dauden langileek proposamenaz egiten duten defentsa erabiliko da berdinketa hausteko.

11. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA.

11.1. Proposamenak aurkezteko.

Eskaintza barneko agiriak Nafarroako Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bidez (PLENA) soilik aurkeztuko dira. Plataforma eskura egonen da Nafarroako Kontratazioaren Atariko lizitazio iragarkian (www.contrataciones.navarra.es), honako paragrafo hauetan ezarritakoarekin bat:

15 egun naturaleko epea izanen da eskaintzak aurkezteko, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Bai jakinarazpen oro, bai pertsona edo enpresa interesdunekin egin beharrezko tramite guztiak, PLENaren bidez eginen dira.

Proposamenak isilekoak izanen dira, eta aurkezteak berarekin dakar enpresak baldintzarik gabe onartzen duela baldintzen plegu hau bere osoan.

Lizitatzailerak ezin izanen du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ezta beste batzuekin aldi baterako batuta ere, banakako proposamena aurkeztu badu; era berean, ezin izanen du parte hartu aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan. **Ez da onartuko aldaerarik aurkeztea.**

Arau horiek hautsiz gero, eta lotuta dauden enpresek aldi berean eskaintzak aurkezten badituzte, arau-hausleak izenpetutako proposamen guztiak onartu gabe geldituko dira.

12. PROPOSAMENETAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Proposamenak PLENAn eskaintza honetarako ezarrita dagoen egiturarekin bat aurkeztuko dira, eta nolanahi ere, kontratu-izaera izanen dute eta agiri hauek barnebiduko dituzte:

1. ARTXIBO ELEKTRONIKOA (1. Gutun-azala): DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 55. artikuluan xedatukoaren babesean, hauxe barnebidu beharko du:

- Erantzukizunpeko adierazpena: 1. ERANSKINAREKIN bat, eta behar bezala ahalordeturik dagoen pertsona batek sinatua. Elkarrekin aurkeztutako enpresak badira, erantzukizunpeko adierazpena enpresa horietako bakoitzak egin beharko du.

1. artxibo elektronikoa, formula bidezko irizpide kuantifikagarriei dagozkien informazioa sartzen bada (1. ERANSKINA), enpresa lizitaziotik kanpo geldituko da.

2. ARTXIBO ELEKTRONIKOA (2. gutun-azala): – “EUSKARA MERKATARITZAN” PROGRAMA GARATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO PROPOSAMEN METODOLOGIKOA

Aurkeztu beharko da lizitatzailerak egoki estimatzen duen dokumentazio guztia eta, plegu hauetan ezarritako esleipen irizpideetara loturik, proposamena ahalik eta hobekien ulertzen erraztuko duena. Dokumentazio honetan, gutxienez, ondokoa agertu beharko da: programari lotuak egonen diren langileen eta kolaboratzaileen Currículum Vitae.

2. artxibo elektronikoa, formula bidezko irizpide kuantifikagarriei dagozkien informazioa sartzen bada (2. ERANSKINA), enpresa lizitaziotik kanpo geldituko da. .

3. ARTXIBO ELEKTRONIKOA (3. gutun-azala): – FORMULA BIDEZKO IRIZPIDE KUANTIFIKAGARRIEN ESKAINTZA.

2. ERANSKINAREKIN bat, eta behar bezala ahalordeturiko pertsona batek sinatua.

Bete gabe edo informaziorik gabe dauden atalak edo eremuak, zer puntu emanen zaie, salbu eta Proposamen Ekonomikoari dagokion atala, zeren zuzenean baztertuak geldituko baitira proposamen ekonomikorik gabeko eskaintzak.

13. KONTRATAZIO MAHAIA.

Prozedura honetan arituko den Kontratazio Mahaiak kide hauek izanen ditu:

- Mahaiburua: Juan María Albizu Andueza jn. Udaleko alkatea.
- Ordezkoa: Koldo Fernando Abrego Primo jn. Alkateordea. Alkateordea.
- Mahaikidea: Mario Zapata Solano jn. Udalaren euskara Teknikaria.
- Ordezkoa: Eskuordetzen duen Euskara Teknikaria.
- Mahaikidea: Maite Etxarte Zambrano and., Udaleko kontu-hartzailea.
- Ordezkoa: Eskuordetzen duen udal langilea.
- Mahaikide-idazkaria: Itziar San Martín Erice and., Udaleko idazkaria.
- Ordezkoa: Eskuordetzen duen udal langilea.

Kontratazio Mahaiak kanpo aholkularitza tekniko eskatzen ahalko du aurkezten diren proiektuak baloratzeko.

14. PROPOSAMENAK ONARTZEA.

Kontratazio Mahaiak, barne ekitaldi batean, 1. Artxibo elektronikoa ireki eta aztertuko du, DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOARI dagokiona, hain zuzen.

Kontratazio Mahaiak, aurkeztu den dokumentazioan, akats materialak ikusten baditu, edo edukia ez baldin badator bat 1. ERANSKINEAN ageri den erantzukizunpeko adierazpenaren edukiarekin, 5etik 10 egun naturalera bitarteko epea emanen da, lizitatzailleek akats horiek zuzendu ditzaten, betiere emaniko helbidera jakinarazpena posta elektronikoz bidalita .

Dokumentua zuzentzeko eskaria lizitatzailleek erantzukizunpeko adierazpenean adierazi duten posta elektronikora jakinaraziko da.

Behin akatsak zuzentzek epea iraganik, eskatu den informazioa osatu edo zuzendu ez bada, prozeduratik kanpo geldituko da, eta hori agiri bidez jaso beharko da.

15. PROPOSAMEN TEKNIKOAREN BALORAZIOA.

Ondoren, Kontratazio Mahaiak, baren ekitaldi batean, 2. Artxibo elektronikoa ireki eta aztertuko du, DOKUMENTAZIO TEKNIKOARI dagokiona, hain zuzen.

Proposamen teknikoaren inguruko erabakia hartu aurretik, Kontratazio mahaiak, "EUSKARA MERKATARITZARA" programaren garapen eta kudeaketan parte hartzen duten udaletako euskara teknikarien taldearen aholkularitza izanen du. Taldeak horren inguruko txosten bat igorriko du.

Aurkeztutako dokumentazioa iluna edo zehaztugabea bada, argibide osagarriak eskatu ahal izanen dira, baina argibideok ezin izanen dute aldatu aurkeztutako eskaintza. Erantzuteko epea gutxienez bost egun naturalekoa izanen da.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 97. artikuluan ezarritakoarekin bat, teknikoki desegokiak diren eskaintzak edo kontratuaren behar bezalako exekuzioa modu egokian bermatzen ez dutenak bazter uzten ahalko dira.

Dokumentazioak funtsezko akatsak baditu edo zuzentzeko modukoak ez badira, proposamena atzera botako da.

Bere proposamena egin baino lehen, Kontratazio Mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eskatzen ahalko ditu, kontratuaren xedearekin lotura badute.

16. PROPOSAMEN EKONOMIKOA IREKITZEKO EKITALDI PUBLIKOA.

Behin Dokumentazio Administrazioa eta Dokumentazio Teknikoa kalifikatuta, Kontratazio Mahaiak, jendaurreko ekitaldian, eta Kontratazioaren Atarian argitaratzen den lekuan, egunean eta orduan, bertan dauden pertsonei jakinaraziko die zer balorazio lortu duten gainerako irizpideetan.

Ondoren, 3. artxibo elektronikoa irekiko da, FORMULA BIDEZKO IRIZPIDE KUANTIFIKAGARRIEN ESKAINTZAK, salbu eta bazterturik gelditu diren eskaintzenak, dela 1. artxibo elektronikoari dagokion dokumentazioan akatsak zirelako, dela 2. artxibo elektronikoari dagokion dokumentazioan akatsak zirelako.

Ondoren, haietan egindako proposamenak irakurriko dira.

Gero, ikusiko da eskaintza ekonomikoak anormalak edo neurrigabeak ote diren, eta onartutako eskaintzak bakarrik hartuko dira erreferentziatzat.

Eskaintza baxuegitzat jo ahalko da, baldin eta lizitazio aurrekontua baino % 30 edo hortik gora txikiagoa bada. Holakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

17. EBAZPEN-PROPOSAMENA

Kontratazio Mahaiak kontratua proposamenik hoberenari adjudikatzeko proposamena eginen dio Kontratazio Organoari. Proposamenean lehentasun-hurrenkeran agertuko dira eskaintza onargarria egin duten pertsonak edo enpresak, bakoitzak adjudikazio irizpideen aplikazioan eskuratutako puntuazioak zehaztuta.

Adjudikazio proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko harik eta kontratuaren adjudikazio ebazpena onetsi arte.

18. ESLEIPENA.

Kontratazio Mahaiak, ebazpen arrazoituaren bidez, gehienez hilabeteko epean adjudikatuko du kontratua, "Automatikoki Baloratu daitekeen Proposamena" jendaurrean irekitzen denetik. Ebazpenak gutxienez bildu beharko du zer arrazoiengatik baztertu diren eskaintzak, bai eta eskaintza aukeratuaren ezaugarriak eta abantailak ere. Ebazpena ez bada ematen adjudikazio epean, lizitaziorako onartutako enpresek eskubidea izanen dute beren proposamena kentzeko, inolako zehapenik gabe.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, kontratazio organoak eskubidea izanen du adjudikazio prozedura huts deklaratzeko, arrazoiak emanez.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, adjudikazio egintzaren eraginkortasuna 10 egun naturalez geldituko da etenda, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen denetik aitzina. Adjudikazio egintza eten eginen da kontratazio publikoaren arloko erreklamazio bat aurkezte hutsagatik, harik eta erreklamazio hori ebatzi arte.

Behin adjudikazioa erabakita, lizitazioan ari diren parte-hartzaileei jakinaraziko zaie.

19. BERMEAK.

Kontratua formalizatu aurretik, adjudikaziodunak **adjudikazioaren zenbatekoaren % 4** jarriko du Udalaren alde (BEZa kanpo).

Berme horiek kontratistaren betebeharre lotuta egonen dira berme-epea amaitu arte; bereziki, berandutzagatiko zigorren ordainketa eta kontratua gauzatu bitartean kontratistak eragin ditzakeen kalte eta galeren konponketa bermatzeko izanen dira.

Era berean, aipatu bermea bahitzen ahalko da, kontratistaren erruak eragindako ez-betetzea dela eta, kontratua suntsiarazten denean; betiere behar adinako kopurua konfiskatuko da kalte eta galera frogatuak estaltzeko.

Bermeak modu hauetako edozeinetan eratzen ahalko dira:

- a) Eskudirutan.
- b) Abalaren bidez. Espainian eragiketak egiteko baimena duen banku, aurrezki kutxa, kreditu kooperatiba edo elkarrekiko bermerako sozietate batek emandako abala izanen da, lehenbiziko errekerimenduan kobratzen ahal dena.
- c) Kauzio aseguruaren kontratua aurkeztuz, kauzioaren arloan aritzeko baimena duen aseguru entitate batekin egina.

Bermea ofizios itzuliko da, behin kontratuaren berme-aldia bukatuta, unitate kudeatzaileak kontratua Udala asetzeko moduan bete dela jasotzen duen txostena egin ondoren, edota kontratua suntsitu bada kontratistak errurik izan gabe.

20. KONTRATU AURREKO DOKUMENTAZIOAREN AURKEZPENEA.

20.1. Kontratazio Mahaiak adjudikazio proposamena jakinarazi eta, gehienez, 7 egun naturaleko epean, proposatutako lizitatzailerak honako dokumentazio hau aurkeztuko du:

Lizitatzaileraren nortasuna eta, hala bada, proposamenaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzeko dokumentua edo dokumentuak, hau da:

Nortasun agiri nazionala (edo araudiaren arabera ordezten duen dokumentua) pertsona fisikoen edo banaka aritzen diren enpresaburuen kasuan.

Lizitatzailera pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura, egokia dena, Merkataritza Erregistroan inskribaturikoa, betebeharrak hau aplikagarria zaizkion merkataritza legeen arabera galda daitekeenean. Horrela ez bada, jarduteko gaitasunaren egiaztapena eskrituren edo eraketa dokumentuaren, aldaketa dokumentuaren, estatutuen edo haren jardura arautzen duten arauak agertzen dituen fundazio egintzaren bidez egiten da, horiek dagokien Erregistro ofizialean, hola badagokie, inskribaturik.

Beste pertsona baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek: notario-ahalorde askietsia, kasuan kasuko erregistroan inskribaturik egon beharko duena, baldin eta gauza horiek ez badaude jasota aurreko paragrafoan aipaturiko eskrituran. Halaber, ahalduaren Nortasun Agiri Nazionala edo ahalduarena, arauz ordezkatzeko badu.

Enpresa Nafarroako Foru Komunitateko Borondatezko Lizitatzaileren Erregistroan inskribaturik badago -zeina azaroaren 5eko 236/2007 Foru Dekretuaren bidez arautua baitago-, aski izanen da aipatu Erregistroan inskribatua dagoela adierazten duen ziurtagiria aurkeztea (internet bidez elektronikoki eskuratua), indarrean dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, enpresaren nortasuna eta ordezkaritza frogatzeko.

1.3.- Batera parte hartzen duten lizitatzailerak eskaintza aurkezten dutenean, haietako bakoitzak bere nortasuna eta jarduteko ahalmena frogatuko ditu, eta dokumentu pribatuan adierazi beharko ditu eskaintza sinatu duten enpresen izenak eta inguruabarrak nahiz bakoitzaren partaidetza, eta era berean, pertsona edo entitate bat izendatuko du, kontratuaren indarraldian enpresa guztien ordezkaritza izateko Administrazioaren aurrean. Aipatu dokumentua elkarturiko lizitatzailerak bakoitzak edo haren ordezkariak sinatu beharko dute.

Erantzukizuna beti solidarioa eta kontratutik etorririko eginbehar multzotik bereiztezina izanen da.

Erakundearen identifikazio fiskaleko zenbakia. Eskaintza elkarrekin parte hartzen duten enpresek aurkezten badute, elkarturiko erakundeetako bakoitzak emanen du IFZ.

3.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, bai eta teknikoa nahiz profesionala ere, frogatzen duen dokumentazioa.

4.- Lizitatzaillearen erantzukizunpeko adierazpena, segurtasun, laneko osasun eta lan arriskuen prebentzioaren arloetan diren betebeharrak betetzen dituela adierazteko, indarrean dauden xedapenekin bat.

Horretarako eta denbora baterako eratzen diren enpresaburu elkarketek edo elkarrekin parte hartzen duten lizitatzailleak aurkezturiko eskaintzen kasuan, elkarketako kideetako bakoitzak aurkeztu beharko du aipaturiko aitortpena.

Dagozkien ogasunek (Nafarroako Foru Ogasunak edo eta Estatuko Ogasunak edo eta foru ogasunak) eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek emaniko aldeko ziurtagiriak, lizitatzailleak bere zerga eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, hurrenez hurren, betetzea egunean duela egiaztatzeke. Aipatu ziurtagiriekin proposamenak aurkezteko epea bete baino gehienez ere sei hilabete lehenago luzatuta egon beharko dute.

Horretarako eta denbora baterako eratzen diren enpresaburu elkarketek edo elkarrekin parte hartzen duten lizitatzailleak aurkezturiko eskaintzen kasuan, elkarketako kideetako bakoitzak aurkeztu beharko du aipaturiko aitortpena.

6.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emana izatea eta egunean egotea ziurtagiri bidez frogatzea.

Horretarako, alta aurkeztu beharko da, uneko ekitaldian hartu bada. Alta aurreko ekitaldietan hartu bada, zergaren azken ordainagiria aurkeztuz frogatu beharko da. Bi kasuetan, halere, erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da aipatu zergaren matrikulan baxarik hartu ez izana adierazteko.

Aipatu udal zerga ordaintzetik salbuetsita dauden subjektu pasiboak badira, horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, ordezkariak sinatua.

7.- Abala edo bermea, plegu honetan ezarritakoarekin bat.

20.2. Hutsak konpontzea.

Dokumentazioa aztertzean, dokumentazioan hutsak daudela edo agirien aurkezpenean akatsak daudela ikusten bada, betiere zuzentzeko moduko lege-konsiderazioa badute, kontratazio mahaiak errekerimendua eginen dio lizitatzailleari, bost egun naturaleko epean dokumentazioa osatu edo zuzendu dezan, errekerimendua jakinarazten zaionetik aitzina.

Beharrezkoa den dokumentazioa behar den epean eta behar den moduan aurkezten ez bada, eskaintza hori lizitaziotik baztertuko da, aplikatzen ahal zaizkion zehapenak baztertu gabe, eta berriz ere puntuak esleitu ahal zaizkie prozeduran onartutako enpresei edo entitate lizitatzailleei.

Adjudikazio proposamen berria jasotzen duen enpresak edo entitate lizitatzailleak frogatu beharko du behar diren baldintzak betetzen dituela eta baliozkoak direla kontratatzeke, klausula honetan ezarritakoarekin bat.

Aipatu diren agiri guztiak jatorrizkoak edo notarioak edo administrazioak konpultsatutako fotokopiak izanen dira.

21. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Etenaldi epea bukatu eta 15 egun naturaleko epe barnean, Administrazioak eta kontratistak kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko dute.

22. ZERBITZUAK EMATEKO MODUA.

Zerbitzuak hauei estu heldurik emanen dira: Baldintza Plegu honi, Agindu Tekniko Partikularren Pleguari, kontratuaren xedea definitu eta baldintzatzen duten oinarrizko datuei, esleipen hartzaileak aurkezturiko eskaintzari eta horiek aplikatzeko Administrazioak emanen dituen jarraibideei, zein idatziz formalizatuz gero nahitaezkoak izanen baitira.

Esleipen hartzailea, lanak egiteko, ongi gauzatzeko ekipoa, laguntza baliabideak, lokala eta langileak jartzera beharturik egonen da. Administrazio kontratatzaileak kontratua gauzatzeko ematen duen, hola bada, dokumentazioa lanak onartzean itzuliko da.

Administrazio kontratatzaileak, egokitzen jotzen dituen langileen bitartez, kontratuan adieraziriko lanen kontrola egiten du esleipen hartzaileak kontrol hori egitea errazteko konpromisoa hartuta.

Esleipen hartzaileak Administrazio kontratatzaileari azken horrek kontratuaren xedea behar bezala gauzatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzu profesional guztiak, hala nola azalpenezko bileretara joan, jendearentzako informazioa, e.a., emanen dizkio gehigarriko kosturik gabe, kontratuaren iraunaldia bukatu arte.

23. ARRISKUA ETA MENTURA. KALTE-GALERAK.

Kontratuaren xedea diren zerbitzuak esleipen hartzailearen gain egiten dira, ematean izan ditzakeen galera, matxura edo kalteengatik ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izan gabe.

Esleipen hartzaileak ezin izanen du bere eskaintzan finkaturiko prezioen igoerarik eskatu, ezta kontratuaren baldintza ekonomikoena, inola ere ez, ezta oker edo huts kasuetan ere.

Nolanahi ere, hauek izanen dira esleipen hartzailearen kontura:

- Kontratuaren formalizaziotik eratorririko gastuak, holakorik balego.
- Aplikagarriak diren eta kontratua edo haren gauzapena direla-eta edo haien ondorioz exiji daitezkeen zerga, tasa eta gainerako kargak.
- Kontratuaren xedea diren zerbitzuen gauzapenetik eratorririko beste gastu oro.

24. BAIMENAK ETA LIZENTZIAK.

Esleipen hartzaileari dagokio kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko beharrezko baimen eta lizentzia guztiak, bai publikoak bai pribatuak, eskuratzea.

25. EUSKARRIEN ETA MARKEN JABETZA.

Programaren garapenean sortzen diren mota ezberdinetako euskarrien eta marken jabetza, betiere Udal Zerbitzuena izanen da, hala nola, euskarri fisikoak eta digitalak (kartelak, aldizkariak eta abar); interneteko tresnak (blogak, sare sozialak eta abar); programa garatzeko sortzen diren markak.

26. KONTRATUAN ALDAKETAK.

Behin kontratua burututa, Kontratazio Organoak kontratua osatzen duten prestazioetan bakarrik sartzen ahalko ditu aldaketak, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru legearen 114. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat.

Lizitazio honen baldintzen barnean, goranzko aldaketaren gehieneko zenbatekoa programan parte hartzen duen denda kopuruari lotuta legoke, Klausula Teknikoen Pleguan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, kontratuaren urteko gehieneko prezioak ez luke inoiz % 36 gairidituko, hau da, 35.634,80€ (BEZa kanpo).

27. KONFIDENTZIALITASUNA ETA ISILTASUNA.

Adjudikaziodunak sekretu profesionala bermatzeko konpromisoa hartzen du, kontratuaren gauzapenean eskuratutako informazio orori dagokionez, eta era berean, behar diren neurri guztiak hartu beharko ditu informazioa eta Administrazioari emaniko edo Administrazioaren jabetzapeko material mota oro kontserbatzeko; horretarako, bere langileei sekretua gorde beharra azalduko die, eta behar diren protokoloak ezarriko ditu betebeharrak hori egiazki betetzeko.

Sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak kontratua bukatu edo suntsiarazi ondoren irauten du.

Sekretua edo konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharra urratzen duen esleipen hartzailea bere jardunak Administrazioari edo hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalte-galera guztien erantzulea izanen da, eror litekeen zigor erantzukizuna alde batera utzita.

28. KONTRATUA EZ-BETETZEA ETA ZIGORRAK.

Izaera orokorrarekin, kontratutik eratorritako betebeharrak osoki edo zati batean ez betetzea, derrigorrezkoak diren jardunbideak ez egitea eta epeak ez betetzea suposatzen duten kontratistaren jokamolde guztiak zigor objektu izanen dira.

Bereziki, faltatzat jotzen dira KONTRATU PUBLIKOEI BURUZKO APIRILAREN 13KO 2/2018 FORU LEGEAREN 146. artikulua 1. idatz-zatian bildutako guztiak.

Horri gehitu beharko litzaioke sekretu profesionala gordetzeko betebeharra ez betetzea.

Faltak, oro har, arinak, larriak edo oso larriak izanen dira, honako irizpideen arabera: eman ez den prestazioaren garrantzia eta horrek programaren garapenean izan duen eragina, bai eta faltan berrerortze edo berriz egitea. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 146. artikulua 1. idatz-zatian azaldutako kasuez gain, kontratuaren xede den programari dagokionez, kasu hauetan zehaztu daiteke:

- Ezarritako bisita kopurua:
 - Ezarritako bisita kopurua ez betetzea, % 5etik behera. Falta arintzat jo daiteke.
 - kopurua ez betetzea, % 6 eta 15 artean. Falta larritzat jo daiteke.
 - kopurua ez betetzea, % 16tik gora. Falta oso larritzat jo daiteke.
- Materiala eta itzulpenak:
 - Merkatariek eskatutako materiala eta itzulpenak 15 eguneko epean ez ematea. Falta arintzat jo daiteke, eta berriro egitea falta larritzat.
- Ezarritako egutegia ez betetzea.
 - Falta arintzat jo daiteke, eta berriro egitea, falta larritzat.
- Egindako itzulpenak Euskara Zerbitzuetara ematea.
 - Egindako itzulpenak Euskara Zerbitzuetara ez ematea. Falta arintzat jo daiteke, eta berriro egitea, falta larritzat.
- Proposamenean xedatutako dedikazioak ez betetzea.
 - Proposamenean xedatutako dedikazioak ez betetzea, % 5etik beherako portzentajearen. Falta arintzat jo daiteke.
 - Proposamenean xedatutako dedikazioak ez betetzea, % 6 eta 15 artean.. Falta larritzat jo daiteke.
 - Proposamenean xedatutako dedikazioak ez betetzea, % 16tik gora. Falta oso larritzat jo daiteke.
- Proposamenean ezarritako baldintzak generoaren eta prestakuntzaren ikuspuntutik ez betetzea eragiten duen langile aldaketak falta oso larritzat jo daitezke.

Falta araubidea

- Kontratua betetzeko baldintza bereziak ez betetzeak izaera oso larria izanen du.

Zigorra zehaztea

Kontratataren ez-betetzeak zigortzen ahalko dira, 2/20128 Foru Legearen 146. artikulua 3. Idatz-zatian ezarritakoarekin bat.

Prozedura

Zigorren inposatzea prozedura kontradiktorio baten bidez egingen da, esleipenduna bertan dela.

Esleipendunak, ez betetzea gertatzen bada, sortutako kalteak zuzendu beharko ditu, hori guztia, gertaerak sortzen duen ardura eskakizunik eskatu gabe.

Zigorraren zenbatekoak ordainketa partzialetan hauen kenketa eginez beteko dira.

29. LAN ETA GIZARTE BETEBEHARRAK.

Kontratuak errespetatu egin behar ditu lege-, erregelamendu- eta konbentzio-mailetako xedapenak, indarrean daudenak lan arloan, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasunean eta osasunean, eta batez ere, enpresa kontratataren jardura kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialak ezarritako baldintzetan.

Kontratatik betebeharrak horiek betetzen ez baditu, edota kontratatik izendatutako langileek segurtasun eta osasun arloko xedapenak urratzen baditu, administrazio kontratugileak ez du erantzukizunik izanen.

Berribeiteko Udalak eskatzen duen aldioro, adjudikaziodunak behar den informazioa jarri beharko du udalaren eskura enpresako langileen kontratuei buruz, hots, kontratu hau betetzen arin diren langileen kontratuei buruz.

Gertatzen den aldaketa ororen berri eman beharko zaio aurretiaz eta modu frogagarrian kontratuaren Unitate Kudeatzaileari, eta Unitateak ez du onartuko ordezkapenik langileak lan kualifikazio bera ez badu. Aldaketari baimena eman beharko zaio.

Aplikatu egin beharko da Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 66. artikuluan xedatutakoa kontratuak exekutatzean bete beharreko eskakizun sozialak eta ingurumenaren eta genero berdintasunaren arloetakoak. Honatx zer adierazten duen hitz hitz 3. puntuak:

a) Kontratuak errespetatu egin behar ditu lege-, erregelamendu- eta konbentzio-mailetako xedapenak, indarrean daudenak honakoei dagokienez: fiskalitatea, Gizarte Segurantza, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuagatiko jazarpena edo jazarpen sexuala, lan-baldintzak, laneko arriskuaren prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak, desgaituen laneratzeko eta gizarteratzea. Halaber errespetatu behar ditu desgaituen kopuru edo portzentaje zehatz bat kontratatzearen betebeharra eta, batez ere, kontratatutako beharreko jardura kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialak ezarritako baldintzak.

b) Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazio-hartzaileak aurre egin ahal izateko kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari, gutxienez ere; aintzat harturiko soldaten ordutegiko prezioak ezin izanen dira inolaz ere baxuagoak izan ordutegiko prezioak, gehi hitzarmeneko ordutegiko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino.

c) Zerbitzu-kontratuaren eta zerbitzu-emakidako kontratuaren kasuan, kontratazioa egingen da, 67. artikuluan ezarritakoari jarraituz, langile guztien subrogazioa bermatzearen baldintzapean, beste enpresa batekoak izanagatik ere kontratuaren xede den jardura egiten ari badira.

Kontratuak errespetatu egin behar ditu lege-, erregelamendu- eta konbentzio-mailetako xedapenak, indarrean daudenak lan arloan, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasunean eta osasunean, eta batez ere, enpresa

kontratatzen jardura kokaturik dagoen sektorean esparrurik baxueneko azken hitzarmen kolektibo sektorialak ezarritako baldintzetan.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan beharko du adjudikaziodunak kasuan kasuko hitzarmen sektoriala aplikatzetik eratorzen den kostuari aurre egiteko, eta aurreikusita dauden soldaten orduko prezioak ez dira inola ere izanen hitzarmenaren orduko prezioak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino txikiagoak.

30. LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratutik heldu diren eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati bakarrik laga ahal izanen zaizkio, entitate kontratugileak aurrez baimenduta, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 108. artikuluan aurreikusitako inguruabarretako bat gertatzen denean, eta, betiere, horrek ez badakar kontratuaren beste funtsezko aldaketarik edo helburua ez bada foru lege honen aplikazioa saihestea edo merkatuan lehiakortasuna egiazki murriztea.

Lagapena formalizatzeko agiria, bai eta lagapen-hartzailearen kaudimena frogatzen duten agiriak ere, Berriobeitiko Udalari jakinarazi beharki zaizkio. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, Udalak ez du inolako obligaziorik hartuko lagapen-hartzailearekin.

Zerbitzu honetako prestazioak azpikontratatzeko ahalko dira, 2/2018 Foru Legearen 107. artikuluekin bat, betiere kontratazio organoak baimena ematen badu.

31. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA.

Zerbitzuaren kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 160. eta 224. artikuluetan aurreikusitakoak.

Suntsiarazpena deklaratzeko eta ondorioetarako prozedura Foru Lege horretan xedatutakoarekin bat egingen da.

32. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK.

Kontratazio Organoak kontratua interpretatzeko prerrogatiba du, eta era berean, hura betetzeko zalantzak argitzeko, interes publikoko arrazoiengatik aldatzeko, haren suntsiarazpena erabakitzeko nahiz suntsiarazpenaren ondorioak zehazteko prerrogatiba: hori guztia, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen mugen barnean, eta Lege horretan adierazitako betebeharrak eta ondorioak lotuta.

33. KONTRATUAREN IZAERA. JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK. JURISDIKZIOA ETA HELEGITEAK.

Kontratu honek administrazio-izaera du, eta plegu honek eta pleguaren klausula administratiboek eta zehaztutako teknikoek arautzen dute, eta pleguan aurreikusita ez dagoen orotan, berriz, aplikatzekoak izanen dira Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, eta gainerako araudi aplikagarria.

Plegu honek, eranskinek eta erantsitako gainerako dokumentuek orok kontratu-izaera izanen dute. Alderik bada pleguaren eta gainerako edozein kontratu-agiriren artean, plegu hau izanen da nagusi. Kontratista adjudikaziodunaren eskaintzak ere kontratu-izaera izanen du, bai eta kontratua formalizatzeko agiriak ere.

Kontratuaren edozein klausula ezagutzen ez bada ere, edo gainerako kontratu-agiriak edota kontratua betetzean aplikatu beharreko jarraibideak edo araudia ezagutzen ez badira ere, adjudikaziodunak horiek oro bete egin beharko ditu.

Kontratu honek administrazio-izaera dauka; horrenbestez, lehenbizi kontratazio organoak ebatziko ditu betebeharrak betetzetik eta xedapen hauek interpretatzetik heldu diren gorabehera guztiak.

Plegu honen aurka eta huraxe betetzean ematen diren ebazpenen aurka, errekurtsio hauek jartzen ahalko dira aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio egintzaren Berriobeitiko Udalaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- Erreklamazioa kontratazio publikoaren arloan, Kontratu Publikoen Auzitegiaren aurrean, Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen 121. Artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat; horretarako, nahitaezko baldintza da lizitatuzaileek posta elektronikoki bat ematea jakinarazpenak bitarteko telematikoen bidez egiteko.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik hasita.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu, eta biharamunetik hasita.

34. DATUEN BABESA.

Plegu honen xede den prestazioa gauzatzeak berarekin badakar eskuratu behar izatea Udalaren titularitatepeko fitxategietan dauden datu pertsonalak, entitate adjudikaziodunak datu horiek Tratatze Arduradun gisa jokatu du, Datuak babesteari eta eskubide digitalen Bermeari buruzko 3/2018 Lege Organikoarekin bat.

"EUSKARA MERKATARITZARA" PROGRAMA GARATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. DEFINIZIOA ETA ZEHAZTAPEN OROKORRAK

"Euskara Merkataritzara", merkataritzaren esparruan euskararen erabilera sustatzea helburu duen udalerrien arteko programa da. Horren osagarri, Euskara Zerbitzuren batek halaxe eskatuko balu, dendekin batera tokiko elkarteak ere sar litezke, haietan euskararen erabilera sustatzeko asmoz.

Esparru geografikoa honakoa izanen da: Antsoain, Aranguren, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Uharte, Estella-Lizarra, Gares, Atarrabia eta Zizur Nagusia. Berriobeitiko Udalak enpresari jakinaraziko dio udalerri bakoitzari dedikatu behar dion esleitutako lanaren proportzioa.

Euskararen erabilera sustatzeko programa aspaldi abiatu zen udalerri hauetan, beraz, aurretik egindako lana kontuan hartu beharko da, jasotzaileek etena nabari ez dezaten eta orain arte lortutako emaitzak oinarri izan daitezen.

2. EGINBEHARREKO LANAK.

Esleipenak kudeaketa lan guztiak hartuko ditu barne: euskararen erabilera sustatzeko planen metodologia (eremuko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta); harreman zuzenak eta jarraituak udalerrietako establezimenduekin; beharrezko hainbat itzulpen; emaitzen txostena eta jarraipenerako proposamenak; harreman zuzena tokian tokiko Euskara udal Zerbitzuekin, planaren garapen lokala adosteko.

Programaren ebaluazio zehatza egiteaz gain, esparru honetan euskararen erabileraren berri eman dezaketen tresnak garatuko dira: gutxienez, hizkuntza-paisaia neurtu.

3. GIZA BALIABIDEAK

Enpresa lizitatzailerak honako informazio hau eman beharko du:

- **Kaudimen tekniko edo profesionala:**

- Azken hiru urteetan eginiko zerbitzu nagusien zerrenda. Bertan agertu beharko dira zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua.
- Programa honen garapenerako kontratatuko den pertsonalaren dedikazio zehatza (zenbat ordu urtean) eta enpresak koordinaziorako eta jarraipenerako jarritako orduak, hala nola programa kudeatuko duten pertsonen zenbatekoa.
- Kontratua betetzearekin zuzenean lotuta dauden langileen titulazio akademikoak eta profesionalak aurkeztu behar dira.
- Kontratua exekutatzeke enpresak edo profesionalak eskura izanen duen materialari eta lantalde teknikoari buruzko deklarazioa.

- **Pertsonalaren lan perfila:**

- Programa ezarri eta kudeatzearekin zuzenean nahiz zeharka lotuta dauden langile guztiek erabateko hizkuntza gaitasuna izan beharko dute euskaraz, eta EGA titulua edo haren baliokidea izan beharko dute.
- Jarrera proaktiboa.
- Komunikatzeko eta sinestarazteko gaitasuna.

- Gatazkak ebazteko prestasuna.
- Inguruaren ezagutza (bai esparru geografikoarena nola merkataritzakoa).
- Sormenenerako eta ideei berritzaileak proposatzeko ahalmena.

4. KONTRATATUKO DEN PERTSONALAREN FUNTZIOAK.

- Euskara Zerbitzuekin, bisiten kronograma hitzartu eta bisiten urteko plangintza diseinatzea.
 - o Urtean behin bilera bat egitea aurreikusia dago, bisiten urteko plangintza diseinatzeko.
 - o Orduen banaketa kontrola udalerriak.
- Planaren tokiko garapena Euskara Zerbitzu bakoitzarekin hitzartu eta koordinatzea.
 - o Bilera bat egitea bisiten aurretik, eta beste bat, ondotik, helburuak ezartzeko eta balantzea egiteko.
- Dendak bisitatzea.
 - o Urtean gutxienez bi bisita egitea, betiere tokiko Euskara Zerbitzuak bestelako baldintzak jarri ez baditu bere zerbitzu-eskaeran.
- Fitxa bat sortzea denda bakoitzaren jarraipena egiteko eta, hartan, bisita bakoitzaren xehetasunak jasotzeko. Fitxa horiek tokiko Euskara Zerbitzuekin partekatzea eta haiei helaraztea.
- Egindako itzulpenen eta itzulpenen artxiboen erregistroa (testuak Word formatuan). Horiek oro Euskara Zerbitzuei emanen zaizkie.
- Tokiko Euskara Zerbitzuei sortutako euskarri fisiko guztien kopia digitalak emanen zaizkie, baita paperean argitaraturiko kopia bana ere.
- Udalerrri bakoitzak bere establezimenduei euskara sustatzeko eskaintzen dizkien laguntzak ezagutzera ematea.

5. PROGRAMAREN KUDEAKETAREN INGURUKO BESTELAKO ZEHAZTAPENAK.

Urte bakoitzaren hasieran, bilera orokor bat egiten da. Enpresak eta programan ari diren Udalen Euskara Zerbitzuek parte hartuko dute. Aipatu bileran, bisitak banatzeko kronograma hitzartuko da.

Bestalde, gutxienez bi bisita egiten dira denda bakoitzera, betiere tokiko Euskara Zerbitzuak bestelako baldintzak jarri ez baditu bere zerbitzu-eskaeran. Lehen bisita lehen seihilekoan egiten da, eta bigarrena, bigarren seihilekoan. Uztaillean eta abenduan ez da bisitarik egiten. Udalerrri bakoitzean, bisitak egin baino lehen, bilera bat egiten da helburuak ezartzeko. Gero, beste bilera bat egiten da emaitzen balantzea aurkezteko.

Lehen urtean, dendak, guztira, 206 izanen dira, honela banatuak:

UDALA	Komertzio kopura
Berriozar	25
Berriobeiti	17
Antsoain	16
Zizur Nagusia	28
Burlata	30
Aranguren	15
Uharte	25
Atarrabia	36
Gares	9
Lizarra	5
OROTARA	206

Kopuru hori urte bakoitzean aldatzen ahalko da, erakundeek egindako eskaeren arabera; eta horrek, jakina, kontratuaren prezioa ere aldatuko luke.

Kontratuaren aldaketari dagokion atalean aipatu den bezalaxe, lizitazio honen baldintzen barnean, denda kopuruan metaturiko goranzko aldaketa maximoak inoiz ez luke kontratuaren urteko prezioa % 36tik gora aldaraziko.

I ERANSKINA

..... J/And.k NA
duena; helbidea: Kalea: tel.:, jakinarazpenak jasotzeko
posta elektronikoa baliozkoa¹:, Nor ordezkatzuz:
..... IFZ: helbidea:

- EUSKARA MERKATARITZAN PROGRAMA GARATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUEN kontratazioa arautzen duen baldintza administratiboen pleguaren berri izanik eta plegu horretako klausula guztiak bere eginik,

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN HAU SINATU ETA HAUXE AGERTZEN DU

- Ez enpresa, ez bere administrariak, ez daudela kontratatzeke ezgaitasun edo bateraezintasun kasuetan murgilduta, 2/2018 Foru Legearen 22. artikuluan aurreikusita daudenak.
- Gaitasun juridikoari eta jarduteko gaitasunari dagozkien baldintzak betetzen dituela, kontratua gauzatzeko, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Legean ezarritakoarekin bat.
- Egunean dituela zerga, tributu eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, eta era berean, segurtasun eta osasuna arlokoak nahiz lan arriskuen prebentzio arlokoak.
- Legeak ezarritako gainerako betebeharrak betetzen dituela kontratuaren xede diren prestazioak emateko, baita plegu honetan galdatutakoak ere.
- Ez duela eskaintza bat baino gehiago aurkeztu lizitazioan, ez bere izenean, ez lotutako enpresen bidez, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 20. artikuluan jasotako definizioarekin bat.
- Adjudikazioduna baldin bada, kontratua ekitatez eta zerga gardentasunez beteko duela, indarrean dagoen legeriarekin bat.
- Galdatzen den kaudimen ekonomikoa edo finantzarioa daukala.
- Galdatzen den gaitasun teknikoa edo profesionala daukala.

Horrenbestez, ESKATZEN DU erantzukizunpeko adierazpen hau egindakotzat jotzea eta
..... lizitazioan onartzea.

.....(e)an, 2019ko aren(e)an

(Lizitatzaillearen edo haren legezko ordezkariaren sinadura eta N.A.N. zenbakia)

¹ Datu derrigorrez eman behar da

II ERANSKINA

FORMULA BIDEZKO IRIZPIDE KUANTIFIKAGARRIEN PROPOSAMEN EREDUA

.....Jaun/Andreak, NAN:, bere
 izenean edo enpresa hau ordezkatzuz: NAN/IFK:
 (Behar ez dena ezabatu), helbidea:
 kalea..... zk., **“EUSKARA
 MERKATARITZAN” PROGRAMA GARATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZUEN** kontratazioaren iragarpenaren
 berri izanik

Atala:	Azpi-atala		Formula	Puntuak	Puntuak gehienez
1. Eskaintza ekonomikoa	Norberaren [OF] eskaintza ekonomikoa (BEZa kanpo) = €	Eskaintza ekonomiko merkeena [OM] (ez bete) = €	$P = 30 \times OM/OF$		30
2. Giza baliabideak eta dedikazioa	2.1 Langile kopurua.		– Langile bat = 2 p. – Langile 2 edo + = 4. p.		4
	2.2. Formazio osagarria (HIZNET/LINGUANET)		– 1 titulazioarekin = 4 p. – 2 titulazioarekin = 8 p.		8
	2.3. Dedikazioa		– 659 ordu = 0 p. – 664 ordu = 1 p. – 669 ordu = 2 p. – 674 ordu = 3 p. – 679 ordu = 4 p.		4
3. Irizpide sozialak	3.1. Lan taldearen osaera		%50 edo + emakumeak: 5 p.		5
	3.2 Berdintasun plana		bai/ez		2
	3.3 Familia eta lana bateratzeko neurriak		bai/ez		1
	3.4 Genero prestakuntza		– 20 h-tik beherako ikastaroa = 0,5 p. – 21-50 h-ko ikastaroa = 1 p. – 51 h-tik gorako ikastaroa = 2 p.		2
OROTARA					56

.....(e)an, 2019ko aren(e)an

Sinadura